

## Etzi taldea - Ingumarket proiektua

### Kostuak

Balioan oinarritutako negozio-eredua izango zen, interes handiago egogo zen bezeroen zerbitzua, ona eta kalitatezkoa izatean, kostuetan baino.

Lehenik eta behin, ideiaaren patentea egiteak 50-200€ tarteko kostua du. Ez hori bakarrik, hasiera batean erosiko ditugun gauza guztiek ere kostu bat dakarte beraiekin, hauek ordaintzeko, 1.500€ inguru beharko ditugula aurreikusten dugu.

Gainera, app-a eta webgunea sortzeko, aurretik azaldu den bezala, programazio enpresa batekin harremanetan jarriko gara; eta beraiei, hilero diru kantitate bat ordainduko diegu (nahiz eta hasiera batean app osoa sortzeko diru gehiago jasoko duten). Gutxi gorabehera, hilero 400€ ordaintzea aurreikusten dugu, eta proiektuaren hasieran 900€.

Beranduago, app-a *AppStore*-ra eta *PlayStore*-ra igoko ditugu, *AppStore*-ra app bat igotzeak urtero 95€-ko kostea du eta *PlayStore*-ra igotzeko hasiera baten bakarrik ordaindu behar da eta 23€ inguru ordaindu behar dira. Are gehiago, app-a funtzionatzen mantentzeko serbidoreagarik 20-100€ ordainduko ditugu urtean. Gainera, telefonoaren linearen kostua 12.90€ hileko da, adibidez, *MásMóvil*-en.

Horrekin batera, lokalaren alokairua ordaindu beharko dugu, hau kostu finkoa izango da, noski. Alokairua hilero 600-800€ ordaintzea aurreikusten dugu.

Publizitateari dagokionez, orokorrean, kostua aldakorra izango da. Hau da, iragarkia sortzeko beharrezko dirua aldatu egingo da behararren arabera. Halere, sarearen kudeaketaz arduratuko diren pertsonak irabaziko dutena finkoa izango da; 300€ inguru hilabetero, kontuan izanda gure betebeharrak bat izango dela. Horretaz gain, sare sozialetan enpresaren kontu bat zabaltzea doain da; baina, bertan iragarkiak jarri nahi baditugu, kostu bat ordaindu behar dugu. Esaterako, *instagram*en gure proiektuaren iragarki bat jartzeko egunero 2-3€ ordaindu behar dira, hots, 60-90€ inguru hilabetero.

Gure soldatei dagokionez, 1200€ jasoko ditu kide bakoitzak hilero.

Beraz, lehenengo hilabetean, 8240'91€ eta 8433'81€ arteko kostua izatea aurreikusten dugu. Horretaz gain, ostean etorriko diren hilabeteetan, gutxi gorabehera 6180.81€ -ko kostua izango dugula uste dugu.